

ACUERDO POR EL QUE SE MODIFICA LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR ADSCRIBIENDO UNA PLAZA DE TITULAR DE UNIVERSIDAD

El Departamento de Ciencias Humana y de la Educación ha solicitado la incorporación al mismo mediante comisión de servicios, en el Área de Historia Antigua, de don Pablo Ozcáriz Gil, Profesor Titular de Universidad de la Universidad Rey Juan Carlos, con el fin de abordar la puesta en marcha, en el curso 2019/2020, del nuevo Grado de Historia y Patrimonio.

Iniciados los trámites administrativos para llevar a cabo dicha Comisión de Servicios, se precisa contar con una plaza de Titular de Universidad en la citada área de conocimiento, cuya cobertura temporal se llevaría a cabo mediante la comisión de servicios señalada.

Corresponde al Consejo de Gobierno de la Universidad, oída su Comisión Académica, la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del Personal Docente e Investigador adscribiendo una plaza vacante de Titulado de Universidad existente en la misma al área de conocimiento donde dicha plaza se precisa.

Emitido informe por la Comisión Académica en sesión celebrada el día 20 de mayo de 2019, el Consejo de Gobierno de la Universidad Pública de Navarra en sesión de 24 de mayo de 2019

ACUERDO

Primero.- Modificar la Relación de Puestos de Trabajo del Personal Docente Investigador en el sentido de adscribir la siguiente plaza de Profesor Titular de Universidad al Departamento y Área de conocimiento que se señala:

- Plaza nº 5147
- Cuerpo: Titular de Universidad
- Departamento: Ciencias Humanas y de la Educación.
- Área de Conocimiento: Historia Antigua.

Segundo.- Comunicar el presente Acuerdo al Vicerrectorado de Economía, Planificación y Profesorado, al Departamento de Ciencias Humanas y de la Educación y al Servicio de Recursos Humanos, a los efectos oportunos.

Tercero.- Publicar el presente Acuerdo en el Tablón Electrónico de la Universidad Pública de Navarra.

ERABAKIA, IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEN DUENA, UNIBERTSITATEKO TITULAR IZATEKO LANPOSTU BATEN ATXIKIPENA EGITEKO

Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailak eskaera egin du Pablo Ozcáriz Gil jauna, Rey Juan Carlos Unibertsitateko irakasle titularra, zerbitzu-eginkizunaren bidez sail horretan sartzeko, Antzinatearen Historia jakintza-arloan, 2019-2020 ikasturtean Historiako eta Ondareko Gradu berria martxan jartzeko.

Zerbitzu-eginkizun hori aurrera eramateko tramite administratiboak abiarazita, jakintza-arlo horretan unibertsitateko titular izateko lanpostu bat behar da, eta aipatutako zerbitzu-eginkizunaren bidez beteko da behin-behinean.

Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluari dagokio, Batzorde Akademikoari entzun ondoren, Irakasle eta Ikertzaileen Lanpostuen Zerrenda aldatzea, unibertsitateko irakasle titular izateko lanpostu huts bat proposamenean adierazitako jakintza-arloari atxikitzeko.

Irakaskuntza Batzordeak 2019ko maiatzaren 20ko bileran bere txostena eman ondoren, honako hau da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak 2019ko maiatzaren 24an egindako bileran hartu duen

ERABAKIA

Lehenbizikoa.- Irakasle eta Ikertzaileen Lanpostuen Zerrenda aldatzea, Unibertsitateko irakasle titular izateko lanpostu hau dagokion sailari eta jakintza-arloari atxikitzeko:

- Lanpostu zk.: 5147
- Kidegoa: Unibertsitateko titularra
- Saila: Giza eta Hezkuntza Zientziak
- Jakintza-arloa: Antzinatearen Historia

Bigarrena.- Erabaki hau Ekonomia, Plangintza eta Irakasleen gaietarako Errektoreordetzari, Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailari eta Giza Baliabideen Zerbitzuari aditzera ematea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratzea.

pe

51194

Unibertsitatearen Errektorearen Kargua
Unibertsitatearen Errektorearen Kargua
Unibertsitatearen Errektorearen Kargua

Cuarto.- A tenor de lo establecido en el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001 de Universidades y en el artículo 144.1 de los Estatutos de la Universidad, el presente acuerdo agota la vía administrativa, contra el mismo podrán los interesados interponer potestativamente recurso de reposición, ante el Consejo de Gobierno, en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de dicho orden jurisdiccional del Tribunal Superior de Justicia de Navarra; contados ambos recursos desde el día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios electrónico de la Universidad.

Laugarrena.- Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikulua eta Unibertsitatearen Estatutuen 144.1 artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta interesdunek zilegi dute erabaki honen aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jartzea Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegietan, zuzenean. Bi errekurtsoetarako epeak erabaki hau Unibertsitatearen iragarki-ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

EL PRESIDENTE
KONTSEILUBURUA



Alfonso Carlosena
Rector/Errektorea